

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA

Bilbo, 2003-IV-24

*Gotzon Lobera,
Bizkaiko Foru Aldundiko
Euskararen sustatze Zuzendaria*

Eskerrik asko, Euskaltzainburu jauna; Juan Luis Goikoetxea jauna. Mahaikideok. Lagun guztiok. Agur.

Orain lehenengo eta behin eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari betiko modura inbitatu gaituelako bere egoitza honetara. Beste alde batetik, zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiot Juan Luis Goikoetxeari egindako lanagatik, gogoan dut bulegora etorri zitzaidanean kontu hau azaltzen, zelan ikusten zuen berak eta abar. Beste alde batetik, eskerrak eman nahi dizkiot, bereziki, Hezkuntza Sailari, benetan euskaraz izateko bakarrik, ez dakit nik zelan izango litzatekeen hitz teknikoak, baina nik esaten dutena... hizkuntza, ez dakit nik, baina hizkuntza esaten denez, beste zerbaiterako ere esan behar dela, Juan Luisek azaldu duen moduan eta erakutsitako jarreragatik batez ere, hau ere gure ikasle jendeari.

Eta esango duzue zergatik lagundu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak lan hau?

Ba guk ikusi genuen gehien bat hor bazegoela hainbat eginkizun, Juan Luisek esan du dakigunetik ez dakigunera. Momentu honetan horrelako lan batek edo hori orain denbora gitxi, Labayru ikastegiak argitaratutakoa edo Mendebalde Alkarteak egindako formalizazioaren inguruko Jardunaldiak eta, nire ustez izan behar dutelako momentu honetan erreferente, ez dakigunetik edo dakigunetik ez dakigunera edo batzuek erabili beharrean erabiltzen dutelako... Nire ustez, momentu honetan, ez dakigunetik dakigunera eta orduan, une honetan, uste dut, funtsezkoa dela... Esate baterako, behar bada ez da kasualitatea, baina herri aldizkarietan momentu hauetan ikusten den euskara erabilera hori nondik nora abiatu behar den gidaliburu bat izateko, behar bada, makulu eske ari direlako hainbat, hor dagoelako makulu bat baino gehiago dena. Aipatu nahiko nuke momentu honetan eta, behar bada Juan Luis Goikoetxea urrinekoa ez delako, lan aipagarria egiten ari dela Txorierriko herri aldizkaria, *Aikor* aldizkaria euskararen erabilera... Eta nik uste dut horrelako gauzak, hor aipatu beharrekoak direla eta ez direla kasualitatea. Hemen aipa-

tu da zortzigarren euskalkia daukagu momentu honetan borrokan, zein da zortzigarren euskalkia?

Nik esaten dudan ikastolako euskara edo D ereduko euskara. Behar bada, momentu honetan, batez ere, holako inguru erdaldunetan eta bizi garenok, horretaz oso jabetzen gara eta konturatzen gara horrelakoak izatea, benetan inportantea direla. Batez ere ikusten dugunean zer nolako erabilera egiten den momentu honetan horrelakoetan eta batez ere, horretarako.

Eta amaitzeko beste puntu bat hemen aipatu ez dena, baina niretzako egunduko garrantzia daukana eta da teknologia berrien erabilera. Ikuspide horretatik esan behar dugu, beste toki batzuetatik modernitateari buruz berba egiten denean...; ba nik uste dut, gaur goizean bertan, UEUren egoitzan izan gara aurkezpen baten frogatzeko edo erakusteko mundu guztiari zer nolako produkzioa egiten den euskaraz, zelan erabiltzen ditugun guk gaur egun teknikak... eskaintzen dituen aukerak eta momentu honetan baita ere, *Iker 13* bakarrik ez paperean, euskarri informatikoan argitaratzeak badaukala bere garrantzia ere, azpimarratu behar da.

Eta nik uste dut nahikoa esan dudala eta eskerrak eman berriro guztiei eta aurrera egin. Eskerrik asko guztioi.